

Eta gure arrantzaleak?

Gure artean baserritarrak, euren ontuz beintzat, bat be ez dirala aurreratzen sarri entzun izan dogu; siniste gitxi dautsela gaur eguneko aurreratzeak lekarkiezan onai, ta orain gizaldi asko lez, lan egiten dabela.

Mariñelakaitik ezin leiteke olakorik esan, ta gixiagi euskaldun arrantzaleakaitik. Euskaldun mariñela, izan be, begi argi ta belarri croai baxu yaku, itxasoko kontuetan inun aurrerapiderik susmatea ba'dau, bere ontzietara ekarteko. Urteak dirala baztatu ebezan aspaldi erramuz ta aiaz oialez ebiltzan ontziak. Samurtasunez gogora ekar arren, itxas-gizonen bizia errukarri egiten eben ontzi baldrasak. Lurrunezkoak eurak be, banakaren bat izan ezik, aldendu dira. Orain danak makiña eder indartsuz dabiliz, gas-oil makiñaz.

Egunetik egunera ontzi ederraguak ikusten doguz, andiaguak, bizko, rraguak. Eta, jakiña, ontziak andiagi ta urrunagi arrantzan joan bear. Baiña alan ta guzti be, oraingo mariñelak lenguak baiño erosuagi bizi dirala edonok dakus. Lenagi, ontzi txikiaguak ebiltzanean —zelako arrantza alako ontziak nurbait—, arraunai ekinik erabilen ontzia, ta andiaguak ziranean, aizeak eraginda; axerik ez ba'zan, geldi. Gaur be, zortzaxarrez, ba-dira ezbeharak itxaso zear. baiña antxiñako denporetan amaiñ gixajok bizia laga eban olatu artean.

Gaiki edo esku arteko gazetan, bizibidea lortzeko arazoetan, aski aurreratu da euskaldun mariñela; orrela da, ta bedi orrela. Baiña amako gazetan, oitura-ekoduetan, erlejiñoan, noruntz doia, aurreruntz ala atzeruntz? Lenagoko mariñelak, heste euskaldun guztiak lez, Jainko-zaleguak ziran orainguak baiño, elizgoinguak, oitura onagokuak. Etziran itxasora joango, kaitik urteran otoitzik egin harik; eta edozein elizkizunetan elizak mariñelez beteta ikusten ziran. Baiña danetatik ikusgarriana, bere bizikuena, deiko mezea izan oi zan. Orain ogei ta host urte ingururatu domekero be urte guztian itxasoratu zeikean mariñela, ta alan egin oi eben arrain aldi girotsuetan; alan be, itxasora orduko, goizean goizetik deia jotean, or joiazan gure mariñelak eskalaproi edo trasko ta gusti errentzako emoten zan meza entzutera.

Baiña elizatik kanpora be etzan bada-espadaiko a gure itxas-gizona. Ona geuk umotan ikusia. Ondarru gure erriko mariñel zarrak, jantzi urdin ta pipaketan, batzuk jezarrita ta beste batzuk kontu kontari zutiñik, portu aldeko aizekoki erosuan egozala aremaitekuak jolen ba'ebazan, danak batzupelak erantzi ta iru *Agur Mari* esango ebezan. Eta gurasoai entzunda dabilgunez, entzutekuak izaten ei ziran sagardotegietan-eta gizonak ahesten eban zan kanta elizkoiak.

Gaur, ostera, gaitzerontzuetan be alan egin gara-ta, aldatz-bera doan ontetan gure mariñel maitea. Eta darabilen bizi-moduak ez dautsa askorik laguntzen erlejiño arloan. Erriko jaiak kendu ezkeru, udako lau illab-

lutan beintzat, bai jai bai igande, itxaso zabalean dabiltz atunetan diarduen ontziak. Arrasteruak, ostera, iganderik jai artu harik, urte osoan dozuz itxasuan, noizik bein igande-jairen bat zoriz etxean dagielarik. Eta, dakus-gunoz, mariñelak mezatxu bat be entzun baga urteko igande ta jai asko emoten dabez.

Zuko, mariñel arduera dozuenok, eldu arren auzi oneri. Gaur, egia, asko saiatzen dira euren zoria zerbait obetu nairik. Eta txalogarri ditugu elizgizon ta osterantzeko oneik. Gure itxas-egalak zabalak dira, eta euren tako errietan zar ta gazte itxasotik bizi diranak asko; oneik be arima baten jaube doguz, erlejiño-ogiz janaritu bear dabena. Eta Jainkoaganako zale-tasun orretan epeldu ta pikakaka otzituten ba'dira? Ez, arren! Betoiz, ostera, antxiñako denporetako oitura ta ekandu zindo euskaldunak.

KAMIÑAZPI

RILKE OLERKARIA (1875-1926)

Rainer Mari Rilke olerkari liriku au, Praga'n jaio zan eta Valmont'en il. Munich'en eta Berlin'en burutu ebazan bere ikasketak. Lantola bateko ofiziña idazkari luzaro egonik, 1899'garren urtean nurbait. Errusi'ra aldatu zan. Era ederza an, Tolstoi ta Andreas-Salome'n adiskide zala, errusitarren biotza arakatu ta Jainko-zaletasunak aretan nurbaitoko sustarrak botata eukazau ikusteko.

Gaztetxo asi zan olerkigiñan. Oso edor yakozan batez be Rodin arri-irudigiñari aren puzelanak. Eta, azkenez, oner ikasle batagarri ondu zan, arri-irudigiña au be. Orrela koplarria ta babeslea, alkarri lagundurik bizi izan zirau urte askotan.

Poema errez oskidetsuak egin ebazan lenen. Gerora, barriz, Pantze-literaturari itsatsirik, olako idazkera berezi, bere-bere burtekin ezagutzen dogu. Labur, arin, errez, goxoak dira aren bertso guztiak; goi-kutsu ezkatuz onduak goienak. Idazteuna sarri irakurria dogu, ta andik ikasi ta artu eban antza bere neurtitzai eten barik darioen

ezti goitar biguna. Asis'ko Pantzeska donea ekarren noiznai erodutzat. Alan be, etzan inoiz katoliku oso izatera eldu: beti ur birren ordian, ez an ez emen sendo tinkatu bage.

Rilke'ren idaz-lanen artean, onerik dozuz urteneneko: *Leben und Lieder* (Estrasburgo, 1894); *Advent* (Leipzig, 1898); *Mir zur Feier* (Berlin, 1900); *Das Buch der Bilder* (Berlin, 1902); *Das Stundenbuch* (Leipzig, 1905); *Neue Gedichte* (Berlin, 1907). Bai ta ipuin-liburu oneik be: *Am Leben Lin* (Praga, 1898); *Zwei Prager Geschichten* (Stuttgart, 1899); *Geschichten vom lieben Gott* (Berlin, 1900); *Die Letzen* (Stuttgart, 1901); *Requiem* (Leipzig, 1909). Bohemitar olerkari onen idaz-lan osoak, 6 aletan, 1927'garren urtean argitaratu ziran.

Rilke'k, katoliku olerkariaren artean be, indar eta eragipen aundia euki dau. Ao goxo ta bintz betegarri izan yakez askori aren neurtitz labur biziak. Gure olerkari gasteentzat be elitzake eredu txarra, bere erlejiño ta uzkurtz bitxi umekoia kendu ezkeru.